

## erdiko kainera

Kulturgintza

# Bilboko Kafe Antzokia, hutsaren atarian?

Zenbat Gara elkartea da Bilboko Kafe Antzokiaren ugazaba. Izenak badu ironia puntu bat, zertarako ukatu: gau batez “gehiegi zarete” esan zuten udal agintariek, eta hilabetez itxiarazi zuten aretoa. Zigorra betetzear du Antzokiak, baina etorkizun beltza dauka arautegia bigundu ezean. Taberna soila baino askoz gehiago dago kolokan.

UNAI BREA

ALDIZKARI HONEN AZALEAN ageri den data, otsailaren 8a, gorriz adierazita dago Bilboko Kafe Antzokiaren egutegian: hila-beteko zigorraren azken eguna da. Biharamunean atek berriz egongo dira zabalik, ohi legez, baina aurrerantzean ezer ez da berdin izango. Arazoa ez da bakarrik hila-beteko etenak Antzokiari eragingo dion 100.000 eurotik gorako zuloa, ez eta zigorrak sortu duen babesgabetasun sententzia ere. Arazoa da proiektu osoa pikutara joan daitekeela Udalak bere jarrera malgutu ezean. “Bertan behera” dio aretoko atean

jarritako errotuluak, justu urtarrileko programazioa iragartzen zuen afixaren gainean. “Bertan behera” hori behin betiko bihurtzeko beldurrak mugiarazi ditu Kafe Antzokiko arduradunak.

Gaia pil-pilean dago Bilbo aldean: Kafe Antzokia, hiriko gauaren ikurrik behinene-takoa, itxi egin dute, iazko udaberriko gau batez jende gehiegi egon zelako bertan. Sar zitekeenaren bi halako baino gehiago, legedia eskuan hartuta. Baina Antzokia ez da Udalak jomugan ipini duen areto bakarra. Bizkaian gehien saltzen den egunkariak

JABI ZABALA



## Xabier Monasterio eta Teo Etxaburu, Zenbat Gara elkarteko kideak: «Distortsioa da Kafe Antzokia eta beste areto batzuk parekatzea»

**Legea betetzeko prest zaudetela adierazi duzue, baina legea bete- ta zuen proiektua ez dela bidera- garria diozue... Nola ezkondu biak?**

**Xabier Monasterio:** Seguru gaude orain arte ondo egin ditugula gauzak, salbuespenak salbuespen. Esatera- ko, itxiera eragin duen edukieraren kontutxo hori. Legea beteko dugu, bai, baina legeak errealitatearekin bat egin behar du, edo ez du balio. Ezkontza ostean dantzaldiak egin arren inork ez du esaten hotelak dis- kotekak direnik. Orduan, ostalaritza zerbitzua duelako, Kafe Antzokia *pub* hutsa dela esango dugu? Ekimen hau oso handia da eta ezin da ostala- ritza arruntaren parame- troekin neurtu. Hain legezaleak badira, sor dezatela, edukierari buruzko arautegian, gurea bezalako guneeta- rako arau berezia, eta ez gaitzabela epaitu gure- tzat estuegiak diren legeekin. Distortsioa da Kafe Antzokia eta beste areto batzuk parekatzea.

**Nago Udalak nekez onartuko duela plan- teamendu hori, eta zuek, bitartean, fun- tzionatzen jarraitu beharko duzue...**

**Teo Etxaburu:** Hala da. Eta esan beharra dago hainbat proiektu kolo- kan jarri dituztela, kolpe psikologiko handia emateaz gain. Baina eginda- ko kalte guztiak badu alde on bat: euskaldun komunitatea indarturik aterako da. Dagoeneko milaka atxiki- mendu jaso ditugu, Euskal Herrian zein nazioartean. Uholdea da. Zigorra ezarri digutenek tsunami euskalduna jasoko dute ordainetan.

**Barka tematzea baina, elkartasunean oinarritutako indar posi- zio huts batek ez dizue aurrera egitea bermatuko...**

**X.M.:** Beti agertu dugu negoziatze- ko nahia, eta ez dugu gaiza

bera nabaritu haiengan. Gure jarrera berbera izango da zigorra betetakoan, baina uste dugu Uda- lari dagokiola erantzutea. Orain arte ez bezala, borondatea agertu beharko dute gurekin hitz egiteko.

**T.E.:** Guk konponbidea bilatzen segituko dugu. Baina ez gara profeta- tak eta ez dakigu noraino iritsiko diren; ea borondatea duten eginda- ko hutsa konpontzeko. Erantzuna horren araberakoa izango da, eta erantzun ozena izango da gainera, hamahiru urteko ibilbidean geuk ere espero ez genuen dimentsioa eta onarpena lortu baititu Kafe Antzokiak.

**X.M.:** Uste dugu segurtasunaren

INIGO AZKONA



ardura omen daukaten horiek ez dutela ondo neurtu jo nahi izan diguten kolpea. Bes- talde, gure beldurreta- ko bat da honen atzean ez ote dagoen Bilboko gaua desitxuratzeko asmo ezkuturen bat. Zaratarik gabea, gaz- terik gabea... Gau giroa aldirietara joan dadila, hirigunetik kan- po. Guk behintzat Bilbo erdian egoteko apustua egin genuen aspaldi, eta ez dauka- gu aldirietara joateko inongo asmorik.

tarte zabala eskaini dio gaiari: “Ostalaritza vs. Segurtasuna” leloak laburbil dezake auziari heltzeko erabili duten ikuspegia. Udalak darabilen bera, finean. Kafe Antzo- kiko jabeek erabat aldendu nahi dute ezta- baida horretatik. Taberna baten etekinak baino askoz gehiago dago jokoan, gogora- razi nahi dute. Gainerakoa teknizismoak dira.

### Euskararentzat oxigenoa Bilbo erdaldunean

1995ean sortu zen Bilboko Kafe Antzokia, Zenbat Gara elkartearen eskutik. Helburu potoloak zituen, eta hein handi batean bete egin dituztela diote harro. Batez ere, hiriko

euskal komunitateari erreferentzia bat eskai- ni nahi zioten. Bilgune bat. Baina ez bakarrik tragoak hartzeko edo kontzertuak entzuteko bilgunea: Kafe Antzokia kultur egitasmo zabalago baten sostengu ekonomikoa da. Irratia, euskaltegia, ikastaroak, hitzaldiak, antzerkia, bertsoarritza, dantza... Euskara- ren inguruko zenbait proiektuk, berez defizi- tarioak, Antzokiaren itzalak babestuta egin ahal izan dute aurrera. Eta diru laguntza publikorik gabe, Zenbat Garako kide Teo Etxaburuk azpimarratu duenez.

Hori guztia arriskuan egon daiteke orain, edukierari buruzko arautegia ezar- tzeko garaian Udala agertu berri duen zorrotzasunagatik. Hala adierazi du Zenbat



BENAT URBELTZ



BENAT URBELTZ

Garak, eta espero zitekeenez, elkartasun oldea jaso dute. Itxieraren aurkako idatzia jarri zuten euren webgunean, eta aitaren batean milaka sinadura jaso zituzten. Baita nazioartekoak ere. Harro egoteko beste arrazoi bat dute hor antzokitarrak: euskaldunentzat ez ezik, musikazale ororentzat ere ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira, Euskal Herrian eta Euskal Herritik harago. “*Basque Country* izena zabaltzen lagundu dugu”, aldarrikatu du Xabier Monasteriok, proiektuaren beste gidarietako batek. Udalak ez du areriorik makalena aukeratu segurtasunaren aldeko gurutzadari ekiteko. Kalkulu okerra, edo oso serio ari direla adierazteko nahita emandako pausoa? Bigarren hipotesiak jarraitzaile gehiago dauzka.

### “Ez dute arazoa konpontzeko borondaterik”

Kafe Antzokiak kulturgintzan duen pisua jarri nahi du eztabaidaren ardatz. Edukiera gaintzea eta halakoak teknizismoak dira, gogoratu. Baina behin lokatz horietan murgilduta, zaila da irtetea. Teo Etxabururen esanetan, arazoa konpontzeko borondatea behin eta berriz agertu diote Udalarai, baina alferrik. “Bederatzi hilabetez isilik egon ziren, eta azkenean, hamar eguneko aurrera-

Goiko argazkian taberna da, eta antzokia ere bai. Aldamenekoan berriz, kontzertu aretoa. Edonola, gaueko lokala baino askoz jarduera zabalagoa dauka Kafe Antzokiak. Zenbat Gara elkarteko kideek hori azpimarratu dute behin eta berriz.

penez eman ziguten ixteko agindua. Guk, bitarte horretan, hamaika irtenbide proposatu genizkien. Esan genien zigorra betetzeko prest geundela, eta uztaila sasoi ona izan zitekeela horretarako; askoz ekitaldi gutxiago programatzen dira eta kaltea txikiagoa izango zen. Bitartean, egin beharreko egokitzapenak egingo genituen. Baina ez dute izan arazoa konpontzeko borondaterik”.

Etxaburuk aipatu dituen “egokitzapenak”, batez ere, aretoaren atzeko aldean larrialdietarako irteera bat egitea dira: neurri soil horrek legezko edukiera askoz handiagoa izatea ahalbidetuko lioke Kafe Antzokiari. Bestela, espazioa ez omen da arazoa. “Oraingo araudiak dio 420 lagun baino gehiago ezin dela sartu hemen –dio Xabier Monasteriok–; berton egondako edonork daki kopuru hori barregarria dela; aretoa erdi hutsik goatea”.

420ko muga hori da Kafe Antzokia eta Zenbat Gararen proiektu osoa ito dezakeena. “Taberna soila izan gintezke, baina akabo beste guztia”, Etxaburuk dioenez. Ataka hau gaintzeko eginahalak egin arren, ez dute Udalarekin akordiorik lortu. Monasteriok saminez salatu du legea urratuta aberastea leporatu zietela udal ordezkariak. “Hau ez da negozio pribatua ordea!”. Orain, gauzak argitzearen, etxe barruko politikaren hainbat xehetasun eraman dituzte beren webgunera, denon ikusgai egon daitezten. “Argi gera dadila hemen bakoitzak bere soldata duela, eta irabazi guztiak kultur proiektuak finantzatzeko erabiltzen direla”. Eta otsailaren 9tik aurrera, zer? ■

**Udalak ez du areriorik  
makalena aukeratu  
segurtasunaren aldeko  
gurutzadari ekiteko. Kalkulu  
okerra, edo oso serio ari direla  
adierazteko nahita emandako  
pausoa? Bigarren hipotesiak  
jarraitzaile gehiago dauzka**